

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA, 2016KO OTSAILA

Euskal Aeko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak %19,1 gehitu ziren 2016ko otsailean

Atzeritarren sarrerak %28 pasa gehitu

2016ko otsailean, 162.340 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 26.067 gehiago, %19,1eko gehikuntza, Eustaten datuen arabera. Bidaiari-sarrerak %27,6 gehitu ziren Gipuzkoan, %15,8 Bizkaian, %9,7 Araban.

Gaualdiak, 2016ko otsailean, 286.211, aurreko urtekoan baino 49.408, %20,9, gehiago. Gaualdiak ere urte arteko positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Gipuzkoan %26,9, Bizkaian %17,7, Araban %17,2.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2016ko otsaila

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)			
	2016/02	m/m-12 (%)	2016/02	m/m-12 (%)	2016/02	2015/02	plazaka		gelaka	
							2016/02	p.p.*	2016/02	p.p.*
EUSKAL AE	286.211	20,9	162.340	19,1	1,76	1,74	37,0	5,0	49,2	6,0
Estatukoak	196.821	17,3	115.480	15,8	1,70	1,68	-	-	-	-
Atzeritarrak	89.390	29,4	46.860	28,3	1,91	1,89	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	39.641	17,2	21.251	9,7	1,87	1,75	31,8	3,9	44,6	7,1
Estatukoak	30.496	11,2	17.049	6,0	1,79	1,71	-	-	-	-
Atzeritarrak	9.145	43,2	4.202	27,6	2,18	1,94	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	30.566	15,2	15.924	7,9	1,92	1,80	33,7	3,1	49,7	7,2
BIZKAIA	140.682	17,7	79.087	15,8	1,78	1,75	37,4	3,4	51,6	4,7
Estatukoak	95.383	15,0	56.234	13,5	1,70	1,67	-	-	-	-
Atzeritarrak	45.299	23,8	22.853	21,8	1,98	1,95	-	-	-	-
Bilbao	96.175	15,4	53.708	15,9	1,79	1,80	43,1	3,8	57,4	4,8
GIPUZKOA	105.888	26,9	62.002	27,6	1,71	1,72	38,9	7,5	48,1	7,0
Estatukoak	70.942	23,7	42.197	23,7	1,68	1,68	-	-	-	-
Atzeritarrak	34.946	33,9	19.805	36,7	1,76	1,80	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	60.530	25,3	35.112	23,7	1,72	1,70	42,2	6,6	51,0	5,0

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta


Estatuko bidaiariak %15,8 gehitu ziren aurreko urteko otsailaren aldean; atzerrikoak %28,3. Araban estatukoak %6,0 gehitu, atzeritarrak %27,6. Bizkaian estatukoak %13,5 gehitu, atzeritarrak %21,8. Gipuzkoan estatukoak %23,7 gehitu, atzeritarrak %36,7.

Batez besteko egonaldia otsailean 1,76 egun, 2015ekoan 1,74 zelarik. Araban lehengo urteko 1,75 egunetik aurtengo 1,87ra luzatu; Bizkaian 1,75etik 1,78ra luzatu; Gipuzkoan 1,72tik 1,71ra laburtu.

Plazakako betetze-maila ehuneko bost puntuz handitu da Euskal AE osoan, 2015eko otsaileko %32,0tik aurtengo %37,0ra. Araban ehuneko 3,9 puntuz gehitu da, 2015eko otsaileko %27,9tik

aurtengo %31,8ra. Bizkaian ehuneko 3,4 puntuz gehitu, 2015eko otsaileko %34,0tik aurtengo %37,4ra. Gipuzkoan ehuneko 7,5 puntuz gehitu, 2015eko otsaileko %31,4tik aurtengo %38,9ra.

Euskal AEko hotel establezimenduen okupazio-mailaren eboluzioa lurralde historikoaren arabera (%)



Gelakako betetze-maila ehuneko sei puntuz gehitu da Euskal AE osoan, %49,2ra. Araban ehuneko 7,1 puntuz gehitu, %44,6ra; Bizkaian 4,7z, %51,6ra; Gipuzkoan 7,0z, %48,1era.

Hotel-okupaziorik handienak otsailean Bilbon (%43,1), Donostian (%42,2), Gipuzkoako kostaldean (%41,0).

Asteko eguna aintzat, 2016ko otsailean, Euskal AE osoan, okupaziorik handiena (%50,8) aste-bukaeretan; %31,7 lanegunetan.

Landa-ostatueta sarrerak %46,3 gehitu eta gaualdiak %37,7 2016ko otsailean

Euskal AEko landa-ostatueta 5.915 bidaiari-sarrera erregistratu ziren otsailean, aurreko urteko hil beraren aldean %46,3 gehiago. Araban %54,7ko gehikuntza, Bizkaian %55,1, Gipuzkoan %40,7. 367 atzerritar sarrera, %+79,9 aurreko urtekoen aldean, sarrera guztien %6,2. Estatuko bidaiarien sarrerak %44,5 gehitu.

Euskal AEko landa-establezimenduetan otsailean 12.294 gaualdi erregistratu ziren, aurreko urteko hil beraren aldean %+37,7. Araban %56,6ko gehikuntza, Bizkaian %37,6; Gipuzkoan %32,7.

Plazakako betetze-maila, %11,7, ehuneko 2,6 puntu gehiago 2015eko otsailean baino. Araban ehuneko 2,4 puntu gehiago, betetze-maila %9,5. Bizkaian betetze-maila %8,6, ehuneko 2,2 puntu gehiago 2015eko otsailaren aldean; Gipuzkoan 3,0 puntu gehiago, %14,6.

Bidaiariko batez besteko egonaldia laburtu egin da Euskal AE osoan, 2015eko otsailaren aldean: duela urtebete 2,21 egun; aurtengoan 2,08.

2. taula.- Euskal AEko landa-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2016ko otsaila

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2016/02	m/m-12 (%)	2016/02	m/m-12 (%)	2016/02	2015/02	2016/02	p.p.*
EUSKAL AE	12.294	37,7	5.915	46,3	2,08	2,21	11,7	2,6
Araba/Álava	2.281	56,6	1.134	54,7	2,01	1,99	9,5	2,4
Bizkaia	2.646	37,6	1.314	55,1	2,01	2,27	8,6	2,2
Gipuzkoa	7.367	32,7	3.467	40,7	2,12	2,25	14,6	3,0

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62

ETH-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETH-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko datu-bankua